



Esp. kodea: 2021KKUL0020

Titularra: KULTURA SAILA

Gaia: Lehiaketa deitzea Kulturolako mendebaldeko fatxadan murala egiteko

Hasiera data: 2021/04/20

KULTUROLA: MURAL LEHIAKETA · CONCURSO DE MURAL

1. Deialdia zehaztea

Arrasateko Udala zaharberitzen ari da Kulturola. Eraikin hori Unión Cerrajera lantegiaren sarrera nagusia izan zen, eta aurreikusita dago Udal Euskaltegiaren eta hainbat kultura elkarteren egoitza izatea. Zaharberitze proiektuan jaso zen eraikinaren mendebaldeko fatxadan mural bat edo horma irudi bat egitea. Kulturola eraikinak monumentu izendapena dauka.

Parte hartze irekia eta sortzaileen lana sustatzeko asmoarekin, murala egiteko lehiaketa deitzea erabaki du Udalak.

2. Deialdiaren helburua

Lehiaketaren helburua da aukeratzea proposamenik egokiena Kulturolako mendebaldeko fatxadan mural bat egiteko.

Lehiaketak helburu hauek ere barne hartzen ditu:

- Arrasateko industria tradizio eta jardueraren testigantza jasotzea, kultura erabilera izango duen eraikinean.
- Kulturola lotzea kultura lantegiaren ideiarekin.
- Artearen eta sorkuntzaren zabalkundean eragitea.

3. Gaia

Muralaren gaia da *Arrasateko industria*, ikuspegi zabaletik begiratuta: jarduera historian zehar, tradizioa, teknologia, gizartea, genero ikuspegia, elkarlana, etorkizuna... Gaia lantzerakoan, ezinbestean kontuan hartu behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea. Ez dira onartuko irudi sexistak, arrazistak edo LGTBIfobikoak.

4. Partaideak

Deialdia irekita dago parte hartu gura duten eta adinez nagusiak diren artista norbanako edo artista taldeentzat. Lehiakide bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Taldean aurkezten diren

1. Definición de la convocatoria

El Ayuntamiento de Arrasate tiene en ejecución las obras de rehabilitación de Kulturola. Este edificio, entrada principal a la antigua Unión Cerrajera, albergará, además del Euskaltegi municipal, a varias asociaciones culturales. El proyecto de rehabilitación del edificio contempla la realización de un mural en la fachada oeste. El edificio Kulturola tiene la declaración de monumento.

El Ayuntamiento convoca un concurso para la realización del mural, con la idea de promover la participación abierta y la creación artística.

2. Objeto de la convocatoria

El objeto del concurso es la selección de la mejor propuesta para la realización de un mural en la fachada oeste del edificio Kulturola.

El concurso persigue también los siguientes objetivos:

- Testimoniar la tradición y la actividad industrial de Arrasate, en un edificio destinado a equipamiento cultural.
- Reforzar la idea de Kulturola como fábrica de cultura.
- Promover la creación y difusión del arte.

3. Tema

El tema del mural es *La industria de Arrasate*, desde un amplio punto de vista: la actividad a lo largo de la historia, la tradición, la tecnología, la sociedad, el punto de vista de género, la cooperación, el futuro... En la plasmación del tema deberá cumplirse necesariamente la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres. No se admitirán imágenes sexistas, racistas o LGTBIfóbicas.

4. Participantes

La convocatoria está abierta a la participación de artistas a título individual o a grupos de artistas. Cada concursante podrá presentar una única



Esp. kodea: 2021KKUL0020

Titularra: KULTURA SAILA

Gaia: Lehiaketa deitzea Kulturo-lako mendebaldeko fatxadan murala egiteko

Hasiera data: 2021/04/20

kideek ezingo dute aurkeztu beste proposamenik banaka.

5. Baldintza teknikoak

5.1 Muralaren kokaleku zehatza eta gehienezko neurriak eranskinean jasotzen dira.

5.2 Muralaren estiloa librea izango da, bai eta materialak eta teknika ere. Murala kanpoaldean egongo denez, denboran iraungo duten materialak erabili beharko dira, eta ez dira onartuko berehalakoan degradagarriak izango direnak.

5.3 Aurkeztuko diren lanak originalak eta argitaragabeak izan beharko dira.

5.4 Aurkezten diren norbanako edo taldeek gaitasun eta kaudimen teknikoa izan behar dute murala gauzatzeko, besteak beste, arriskuen prebentziorako, lanak altueran egiteko edota altueran jarduteko makinak erabiltzeko.

6. Lehiaketaren faseak

1. fasea. Proiektuak eta dokumentazioa aurkeztea

6.1 Anonimatua bermatu ahal izateko, proiektua bi gutun azaletan (A eta B) aurkeztuko da. Gutun azalak identifikatuko dira lema batekin.

Hauek izango dira gutun azalen edukiak:

A gutun azala: dokumentazioa eta proiektua

- Proiektuaren deskripzio memoria bat, non zehaztuko diren obraren titulua, teknika, exekuziorako baliabideak eta artelanari buruzko iruzkina.
- Proiektua euskarri digitalean; bertan jasoko dira irudiak eta fotomuntaketa.
- Lanaren exekuziorako aurrekontu zehatza.
- Proiektuaren irudia paperean aurkeztu behar da, gehienez ere A2 tamainan eta euskarri gogorrean (luma kartoia), erakutsi ahal izateko.
- Agiri eta euskarri hauetan ez da azalduko egilearen edo taldearen izenik. Dokumentu

propuesta. Quienes se presenten en grupo no podrán presentar otro proyecto a título individual.

5. Condiciones técnicas

5.1 La ubicación del mural y sus dimensiones máximas se recogen en el anexo.

5.2 El estilo, la técnica y los materiales para la realización del mural serán libres. Los materiales que se utilicen serán duraderos, puesto que el mural se encuentra a la intemperie. No se admitirá la utilización de materiales fácilmente degradables.

5.3 Los proyectos presentados serán originales e inéditos.

5.4 Las personas participantes individual o colectivamente tendrán la solvencia y la capacidad técnica necesarias para la realización del mural, relativas, entre otras, a la prevención de riesgos, a los trabajos en altura y a la utilización de maquinaria para trabajos en altura.

6. Fases del concurso

Fase I. Presentación de proyectos y documentación

6.1 Para garantizar el anonimato, el proyecto se presentará en dos sobres (A y B). Los sobres irán indetificados con un lema.

El contenido de los sobres será el siguiente:

Sobre A: documentación y proyecto

- Memoria descriptiva del proyecto que detallará el título del trabajo, la técnica, los recursos necesarios para su realización y un comentario sobre la obra.
- El proyecto en soporte digital, que incluirá imágenes y un fotomontaje.
- Presupuesto detallado para la ejecución del proyecto.
- La imagen del proyecto se presentará en papel, en un tamaño máximo de A2 y en soporte rígido (cartón pluma), para poder



Esp. kodea: 2021KKUL0020

Titularra: KULTURA SAILA

Gaia: Lehiaketa deitzea Kulturo-lako mendebaldeko fatxadan murala egiteko

Hasiera data: 2021/04/20

<p>guztiak identifikatuko dira lema berberarekin.</p> <p>-</p> <p>B gutun azala: egilearen identifikazioa</p> <ul style="list-style-type: none">- NAN edo pasaporte.- Curriculum vitae. Taldeen kasuan, taldearena eta taldekide bakoitzarena. Bereziki erreferentzia egingo zaio ibilbide artistikoari eta muralgintzan egindako jarduerari.- Konpromiso idatzia obra exekutatzeko edota exekuzioaren bukaera arte obra zuzentzeko, saritua izanez gero.- Zinpeko adierazpena, zeinak zehaztuko duen nor den proiektuaren egilea eta aurkeztutako lana originala dela. <p>-</p> <p>6.2 Proiektuak aurkezteko lekua:</p> <p>Arrasateko Udala BAZ Arano eta Garcia maisu-maistrak kalea 8 20500 Arrasate</p> <p>6.3 Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 12an bukatuko da.</p> <p><u>II. fasea. Epaimahaiaren aukeraketa, proiektuen erakusketa eta herritarren bozketa</u></p> <p>6.4 Aurkezten diren proiektuetatik hiru finalista aukeratuko ditu lehiaketako epaimahaiak.</p> <p>6.5 Aurkeztutako proiektu guztien erakusketa Kulturaten egingo da. Aurreikusitako data: uztailaren 2tik 10era bitartean.</p> <p>6.6 Erakusketak dirauen bitartean, Arrasaten bizi diren 16 urtetik gorako herritarrek hiru finalistetatik bakarraren aldeko bozka eman ahal izango dute, bai Kulturaten bai eta webgunearen bidez ere.</p>	<p>exponerlo.</p> <ul style="list-style-type: none">- En estos documentos y soportes no se mencionará el nombre de las personas autoras. Todos los documentos se identificarán con el mismo lema. <p>Sobre B: identificación de la autoría</p> <ul style="list-style-type: none">- DNI o pasaporte.- Curriculum vitae. En el caso de colectivos, del propio colectivo y de cada una de las personas que lo componen. Se hará referencia a la trayectoria artística y a la actividad muralista.- Compromiso escrito de ejecución de la obra o de la dirección de los trabajos hasta su ejecución, en caso de recibir el premio.- Declaración jurada en la que se manifieste la autoría del proyecto y la condición original de la obra. <p>6.2 Lugar de presentación de los proyectos:</p> <p>Ayuntamiento de Arrasate BAZ Arano eta Garcia maisu-maistrak kalea 8 20500 Arrasate</p> <p>6.3 El plazo para la presentación de los proyectos finalizará el 12 de junio.</p> <p><u>Fase II. Selección del jurado, exposición de los proyectos y votación popular</u></p> <p>6.4 De entre los proyectos presentados el jurado seleccionará tres finalistas.</p> <p>6.5 Los proyectos presentados se expondrán en Kulturate. Fechas previstas: entre el 2 y el 2 de julio.</p> <p>6.6 Durante las fechas de exposición, las personas residentes en Arrasate mayores de 16 años podrán dar su voto tanto en Kulturate como en la página web del Ayuntamiento, para la elección de una obra entre las tres finalistas seleccionadas.</p>
---	--



Esp. kodea: 2021KKUL0020

Titularra: KULTURA SAILA

Gaia: Lehiaketa deitzea Kulturo-lako mendebaldeko fatxadan murala egiteko

Hasiera data: 2021/04/20

<p>6.7 Proiektu saritua epaimahaiaren bozketa (% 70eko balioa) eta herritarren bozketa bidez (% 30eko balioa) aukeratuko da.</p> <p><u>III. fasea. Proiektua aurkeztea eta gauzatzea</u></p> <p>6.8 Uztailaren 18an emango da ezagutzera irabazlea.</p> <p>6.9 Murala irailean zehar egitea aurreikusten da.</p> <p>7. Epaimahaia</p> <p>7.1 Epaimahaia horrela eratuko da:</p> <p>Presidentea:</p> <ul style="list-style-type: none">- Alkatea, edo berak delegatzen duen pertsona. <p>Bokalak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Kulturo-la zaharberritzeko proiektuaren arkitekto egilea.- Arrasate margo taldeak izendatutako ordezkari bat.- Ikus arteetan adituak diren herritar bi, bata emakumezkoa eta bestea gizonezkoa. <p>Epaimahaiaren idazkari Udalaren Kultura saileko teknikari bat arituko da. Epaimahaiak proiektuak aurkezteko epea amaitu eta hamar eguneko tartea izango du gutxi gorabehera aurkeztutako artetik hiru finalista aukeratzeko eta horien gaineko puntuazioa egiteko.</p> <p>7.2 Lehiaketa irabaziko duen obra aukeratzeko, kontuan hartuko da epaimahaiaren erabakia (% 70) eta herritarren partaidetza (% 30). Epaimahaiak aukeratuko ditu hiru finalista, eta horien artetik eman ahal izango dute bozka herritarrek.</p> <p>7.3 Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta erabaki dezake lehiaketa hutsik deklaratzeko.</p> <p>8. Baloratzeko irizpideak</p> <ul style="list-style-type: none">- Proiektuaren kalitate artistikoa (% 50).- Proiektua lehiaketaren helburuetara egokitzea (% 20).	<p>6.7 El proyecto ganador será seleccionado mediante la votación del jurado (con un valor del 70%) y la votación popular (con un valor del 30%).</p> <p><u>Fase III. Comunicación del proyecto ganador y realización del mural</u></p> <p>6.8 El 18 de julio se dará a conocer el nombre del proyecto ganador.</p> <p>6.9 Está previsto que el mural se realice en el mes de setiembre.</p> <p>7. Jurado</p> <p>7.1 El jurado se constituirá con las siguientes personas:</p> <p>Presidencia:</p> <ul style="list-style-type: none">- La alcaldesa o persona en quien delegue. <p>Vocales:</p> <ul style="list-style-type: none">- El arquitecto redactor del proyecto de rehabilitación de Kulturo-la.- Una persona representante de Arrasate Margo taldea.- Dos personas de Arrasate expertas en el ámbito de la cultura visual: una mujer y un hombre. <p>La secretaría correrá a cargo del personal técnico del Departamento de Cultura del Ayuntamiento. El jurado procederá a la puntuación y a la selección de los tres proyectos finalistas en el plazo aproximado de diez días a partir del fin del plazo de presentación de las propuestas.</p> <p>7.2 Para la selección del proyecto premiado, se tendrá en cuenta la decisión del jurado (70%) y el resultado de la participación popular (30%). El jurado hará la selección de tres proyectos, y la ciudadanía podrá votar por uno de ellos.</p> <p>7.3 El fallo del jurado será inapelable y puede declarar el concurso desierto.</p> <p>8. Criterios de valoración</p> <ul style="list-style-type: none">- Calidad artística del proyecto (50%).
--	--



Esp. kodea: 2021KKUL0020

Titularra: KULTURA SAILA

Gaia: Lehiaketa deitzea Kulturo-lako mendebaldeko fatxadan murala egiteko

Hasiera data: 2021/04/20

- Egokitasun teknikoa: aukeratutako materialak, teknika, exekuzioa, neurriak (% 20).
- Proiektuaren bideragarritasuna eta aurrekontua (% 10).

9. Saria

9.1 Sari bakarra izango da, 5.000 eurokoa (kopuru honi aplikatuko zaio dagokion PFEZ). Zenbateko honen barruan daude lehiaketako saria eta murala gauzatzearen ordainsaria.

9.2 Saririk jaso ez duten bi finalistek 500 euroko ordainsari bana jaso ahal izango dute (kopuru honi aplikatuko zaio dagokion PFEZ).

9.3 Sari nagusiaren ordainketa bi zatitan egingo da: erdia erabakia hartzean eta gainerakoa proiektua burutu ondoren.

9.4 Bi finalisten ordainsariak ordainketa bakarrean egingo dira.

10. Murala egiteko aurrekontua

Murala egiteko gehienezko aurrekontua 10.000 eurokoa da. Kopuru honen barruan daude produkzio gastu guztiak: muntaia, makineria, materiala, etab. Dena dela, aurkeztutako proiektuaren aurrekontua hartuko da erreferentzia gisa, kopuru horren gehienezko mugarekin. Murala egiteko gastuak hornitzaileen fakturen bidez ordainduko ditu Udalak. Fakturak aldeztu aurretik proiektu egilearen oniritzia izango dute.

11. Jabetza intelektualaren eskubideak

Proiektuak aurkeztu dituzten egileek gordeko dituzte obra horien gaineko autore eskubideak jabetza intelektualari dagokionean. Hala ere, oinarri hauek onartzearen ondorioz baimentzen dute proposamenak erakustea, erreproduzitzea eta obra horien komunikazio publikoa edozein delarik euskarria, bai eta Udalaren edo Kulturo-lako jardueraren publizitate kanpainen ere; beti ere indarrean dagoen legediaren barruan.

- La adecuación del proyecto a los objetivos del concurso (20%).
- La adecuación técnica: materiales, técnica, ejecución, medidas (20%).
- Viabilidad del proyecto y presupuesto (10%).

9. Premio

9.1 Se concederá un único premio de 5.000 euros (cantidad a la que se le aplicará el IRPF correspondiente). En esta dotación se hayan incluidos el premio y los honorarios por la realización del mural.

9.2 Los dos finalistas no premiados podrán recibir una gratificación de 500 euros cada uno (cantidad a la que se le aplicará el IRPF correspondiente).

9.3 El pago del premio se realizará en dos partes: la mitad cuando se de a conocer el premio y la otra mitad una vez finalizado el proyecto.

9.4 La remuneración de las dos obras finalistas se realizará en un único pago.

10. Presupuesto para la realización del mural

El presupuesto máximo para la realización del mural es de 10.000 euros. Se incluyen en esta cantidad los gastos de producción del mural: montajes, maquinaria, materiales, etc. En todo caso, se tomará como referencia y como límite de gasto el presupuesto del proyecto presentado. Los gastos para la realización del mural se abonarán mediante pago de las facturas que presentarán los proveedores. Las facturas contarán con el visto bueno de las personas autoras del proyecto.

11. Derechos de propiedad intelectual

Las personas autoras de las propuestas presentadas a este concurso conservarán los derechos de autor derivados de la propiedad intelectual sobre las mismas. No obstante, en virtud de estas bases autorizan la exposición de sus propuestas, así como su reproducción, comunicación pública y puesta a disposición del público en cualquier soporte, incluso en campañas publicitarias del Ayuntamiento o de Kulturo-la, siempre dentro de los límites de la legislación





Esp. kodea: 2021KKUL0020

Titularra: KULTURA SAILA

Gaia: Lehiaketa deitzea Kulturoolako mendebaldeko fatxadan murala egiteko

Hasiera data: 2021/04/20

<p>12. Proiektuak jasotzea</p> <p>Sarituak izan ez diren proposamenak (euskarri gogorrean aurkeztutako irudiak) jaso ahal izango dira 2021eko uztailaren 30 arte Kulturaten Kultura sailaren bulegoan, ordutegi honetan: 09:00-14:00. Epe hau bukatu ondoren, Udalak ez du izango erantzukizunik irudi hauen gainean eta har dezake egokiena iruditzen zaion erabakia.</p> <p>13. Oinarri arauak onartzea</p> <p>Lehiaketan aurkezteak berarekin dakar lehiakideek ezagutzen eta onartzen dituztela oinarriak.</p>	<p>vigente.</p> <p>12. Recogida de proyectos</p> <p>Los proyectos no premiados (las imágenes presentadas en soporte rígido) podrán recogerse en Kulturate en la oficina del Departamento de Cultura hasta el 30de julio, con el siguiente horario: 09:00-14:00. Una vez finalizado dicho plazo, el Ayuntamiento declina toda responsabilidad sobre los proyectos no retirados, reservándose el derecho de disponer de ellos como mejor considere.</p> <p>13. Aceptación de las bases</p> <p>La participación en esta convocatoria supone la plena aceptación y conformidad con estas bases.</p>
--	---



**ALTXAERA MENDEBAL
ALZADO OESTE**